

Arrasate

## OSIÑAGAKO BIRIBILGUNEAN OINEZKOENTZAKO PASABIDEA BERMATZEKO MOZIOA

Osiñagako bidegurutzea arriskutsua dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bertako abiadura gutxitzeko eta segurtasunari begira, biribilgune bat egitea erabaki zuen.

Biribilgune horrek, bidegurutzearen arriskuari dagokionez hobekuntzak ekarriko dituen arren, oinezkoek erabiltzen duten pasabideaz zeharo ahaztu direla uste dugu.

Osiñagako bidegurutze horretatik Osiñalde baserrira joateko dagoen bide bakarra igarotzen da. Arrasateko baserri hau saihebidetaren eta autopistaren artean isolatuta gelditu den baserria da, eta herrigunearekin oinezkoentzako konexiorik gabe dago.

Arrasateko Mugikortasun planaren helburuetako bat herritarrak oinez mugitu ahal izatea dela argi daukagu, eta hori kontuan ez edukitzea Mugikortasun plan horri bizkarra ematea litzateke.

Horretaz aparte, bide hori "Musakolako balkoia" deritzon mendi bideko parte da, eta aste bukaeratan erabiltzaile ugari ditu, erabiltzaile horietako asko ume txikiak dituzten familiak izanik.

Hau guztia kontuan hartuta, Musakolako auzo alkatetzak eta Osiñalde baserriko bizilagunek idatzi bana helarazi zioten Arrasateko Udalari, biribilgunearen obra aprobetxatuz oinezkoentzako pasabide bat ahalbidetu eta euren beharrak eta eskakizunak kontuan hartzeko eskatuz. Arrasateko EHBilduk 2022ko aurrekontuei egindako proposamenetako bat ere izan zen hori.

Hirigintza sailak eskakizun hauek obra zuzendaritzari helarazi dizkio, eta EHBildu ere obran bertan egon da eurekin, bizilagunen eskakizunak aztertuz eta konponbideak bilatzen. Halere, proiektuak eskakizun horiek txertatuta ez dituenek, gaur gaurkoz ezin dituzte gauzatu. Hartara, obra zuzendaritzak Hirigintza sailari eta EH Bilduri auzotarren eskakizuna Foru Aldundiari bideratzea gomendatu digu.

Beraz, hau guztiagatik, EH Bilduk hauxe eskatzen dio Arrasateko Udalbatzari:

1. Lehenik eta behin, Musakolako auzo alkatetzak eta Osiñalde baserriko bizilagunek egindako eskaerak onartzea.
2. Eskaera hauek bere egitea eta Foru Aldundira bideratzea obra amaitu baino lehen, hobekuntza hauek txertatzeko.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, Arrasateko Mugikortasun plana kontuan hartzeko eta dituen baliabideak erabiltzeko, oinezkoentzako bide bat bermatu dezagun biribilgunearekin bat.

Arrasateko EHBildu

Arrasate

## MOCIÓN DE GARANTÍA DE PASO PARA LOS PEATONES EN LA GLORIETA DE OSIÑAGA

Dada la peligrosidad de la intersección de Osiñaga, la Diputación Foral de Gipuzkoa decidió realizar una rotonda para reducir la velocidad y de cara a la seguridad de la misma.

Esta rotonda, aunque supondrá mejoras en cuanto al riesgo de la intersección, creemos que se han olvidado por completo del paso que utilizan los peatones.

Por este cruce de Osiñaga discurre el único camino existente de acceso al caserío Osiñalde. Este caserío de Arrasate es un caserío aislado entre la variante y la autopista, y sin conexión peatonal con el núcleo urbano.

Uno de los objetivos del plan de movilidad de Arrasate es que la movilidad peatonal de la población, y no tener en cuenta dicho objetivo sería dar la espalda a este plan de movilidad.

Además, este camino forma parte del sendero del "balcón de Musakola", y en los fines de semana tiene muchos usuarios y usuarias, muchas de ellas familias con niñas y niños pequeños.

Por todo ello, la alcaldía pedánea de Musakola y los vecinos y vecinas del caserío Osiñalde remitieron sendos escritos al Ayuntamiento de Arrasate en los que solicitaban que, aprovechando la obra de la rotonda, se permitiera un paso peatonal y se tuvieran en cuenta sus necesidades y demandas. Esta fue también una de las propuestas de EHBildu de Arrasate a los presupuestos de 2022.

El departamento de Urbanismo ha trasladado estos requerimientos a la Dirección de Obra y EHBildu también ha estado con ellos en la propia obra, analizando lo solicitado por los y las vecinas, y buscando soluciones. Sin embargo, dado que el proyecto no incorpora estas exigencias, a día de hoy no las pueden ejecutar. Así, la dirección de obra ha recomendado al departamento de Urbanismo y a EH Bildu derivar a la Diputación Foral la solicitud de los y las vecinas.

Por todo ello, EH Bildu solicita al Pleno del Ayuntamiento de Arrasate:

1. En primer lugar, admitir las peticiones de la alcaldía pedánea de Musakola y de los y las vecinas del caserío Osiñalde.
2. Asumir estas peticiones y derivarlas a la Diputación Foral antes de finalizar la obra para incorporar estas mejoras.
3. Instar a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que tenga en cuenta el Plan de Movilidad de Arrasate y haga uso de sus recursos, para garantizar un itinerario peatonal acorde con la rotonda.

Udal gobernuak 2022ko otsailaren 9an prentsurreko batekin iragarri zuen hurrengo hilabeteetan TAOren ordenantzan aldaketak egingo dituztela.

Arrasateko Ahal Duguk honako puntu hauek proposatzen dizkio udalbatzari:

1-Parte hartze prozesu bat irekiko da TAO ordenantzan aldaketak egiteko herritarrekin batera

2-Parte-hartze prozesua adierazgarria dela bermatzeko metodologiak bilatuko dira

El gobierno municipal anunció el 9 de febrero de 2022 con una rueda de prensa que en los próximos meses anunciarán cambios en la ordenanza de la OTA.

Desde podemos Arrasate proponemos al pleno del ayuntamiento los siguientes puntos:

1-Se abrirá un proceso de participación para escuchar a la ciudadanía y realizar los cambios en la ordenanza de la OTA

2-Se buscarán metodologías para garantizar que el proceso de participación es representativo